



Agoizko DBHI berria inauguratu du Gimeno kontseilariak, eta martxoaren 8an hasiko dira eskolak bertan



Joan den otsailaren 18an, Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilariak, Ángel Martín Unzué Agoizko alkateak eta Lorea Azpilicueta Agoizko DBHI berriaren zuzendari ondokoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutu (DBHI) berriaren obrak ikuskatu eta zentroa inauguratu zuten. Hezkuntza Departamentuak sustatu ditu egindako lanak, hots, eraiki berri bat altxatzea eta San Migel Ikastetxe Publikoaren ondoan estalpea egitea.

Themolino Proyectos S.L.P. enpresak idatzi ditu institutu berria eraikitzeko proiektua eta obren zuzendaritza. Obrak, berriz, Rio Valle Construcción y Obras Pública, S.L.k egin ditu. Eraikuntza berriaren kostua, guztira, 3.541.229,22 eurokoa izan da, eta obrak 2021eko martxoaren 29tik abenduaren 23ra bitartean egin dira. Ondoren, Hezkuntza Departamentuak garbiketa-, ekipamendu- eta proba-lanak egin ditu instalazioetan. Ikastetxe be-

rria martxoaren 8an, asteartea, jarriko da martxan ikasleentzat.

Eraikin berriak ase du Agoizko ikastetxean ikasten zuten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako espazio propioa izateko premia. Horrela, Haur eta Lehen Hezkuntzarako espazio gehiago gelditu da. Aspaldiko nahia zen institutua edukitzea, eta orain errealitate bat da jada. Agoitzek, bada, burutu du zenbait urtez eskatutako proiektua.



ESPAZIOAK. DBHko gela guztiak zentro berrian egonen direnez, San Migel ikastetxe publikoak 8 ikasgela gehiago izanen ditu erabilgarri, haur eta lehen hezkuntzarako beharretarako erabiliko direnak.

Eraikin berriak 3 solairu ditu (behekoa eta bi gehiago), eta 2.981,84 m²-ko azalera hartzen du guztira (2.634,00 m² erabilgarri). Eraikin berrian honako espazio hauek daude: bigarren hezkuntzako 9 gela arrunt, UCE gela bat (ikas-

tetxean integratutako desgaitasun psikikoa duten ikasleentzako berariazko curriculum-unitatea), bikoizketa-laguntzako 4 gela, ikasnova gela bat (altzari malguak dituen erabilera anitzeko espazio bat, ikasgelaren konfigurazio desberdinak ahalbidetzen dituena eta teknologia digitala irakasleen eta ikasleen zerbitzura duena), beste 8 gela espezifiko (informatika, plastika, zientzien laborategia, etab.), bulegoak, irakasle-aretoa, departamentuentzako bulegoak eta beharrezko beste espazio

batzuk (biltegiak, komunak, instalazio-gelak...). Zentroak badu ere 55m²-ko liburutegia eta teknologiarako 100 m²-ko tailerra.

KIROL-PISTAREN ESTALKIA. Aldi berean, Hezkuntza Departamentuak estalki bat egin du institutu berriaren, San Migel ikastetxearen eta udal kiroldegiaeren arteko tartean, Agoizko Udalarekin akordioa lortu ondoren. Estalki berriaren lanek 398.988 euroko kostua izan dute, eta hari esker lortu dira bi ikastetxeentzako espazio estaliak.

Zuntz optikoa Industrialdean hedatzeko bilerak

Agoizko industrialdeko leku gehienetara ez da ailegatzen zuntz optikoa. Gaur egun Nafarroako Gobernua Agoitzen dituen egoitza korporatiboek baino ezin dute banda zabaleko konexioa, 2018an egin ziren obrei esker.

Bestalde, Adamo Telecom Iberia enpresak herriko etxetara eramaten du zuntz optikoa. Egoera hori zela jakinda, Agoizko Udala



bideratzaile gisa jardun da, inbertsio hori ez baita udalaren esku-mena, eta hainbat bilera tekniko antolatu ditu, Interneteko banda zabalerako sarbidea arindu ahal izateko zuntz optikoa instalatuz hiriko industrialde osoan. Topaketa horietan udal eta hainbat enpresatako ordezkariak, Cederna Garalurrek, Nafarroako Gobernua eta Adamo Telecom Iberiak parte hartu dute.

Hasi dira EuroVelo 3 azpiegitura egokitzeko obrak



BICIMUGI proiektua dela eta, otsailean hasi ziren Aezkoa-Agoitz tarteko lanak. Proiektu horrek bizikletarako azpiegitura osatu nahi du Pirinio Atlantikoen eta Nafarroaren artean EuroVelo 3 Sarea barruan, hau da, Europako Done Jakue Bideen eta Santiago de Compostela hiriaren artean. Eurovelo Europa osoa lotzen duten distantzia luzeko bizikleta-bideen sarea da.

Proiektua idatzi eta 2021ean obrak lizitatu ondoren, 2022ko otsailaren hasieran hasi dira eremuan dauden bideak egokitzeko, bizikletarentzako erabilgarritasuna bermatzeko, bai eta seinaleztapena egiten ere, EuroVelo3 arauen arabera. NASUVINSA da, BICIMUGI proiektuko bazkideetako bat, obren sustatzailea. Agoizko Udala ere proiektuaren bazkidea da, eta, beraz, proiektua udalerrian ezagutzera emateaz ar-

duratzen da, bai eta obrak amaitu ondoren bere udalerriko tartea kontserbatzeko lanak egiteaz ere.

Egokitu beharreko zatia Aezkoaren eta Agoitzen artekoa da, eta udalerrri hauetako lurak hartzen ditu: Aezkoako ibarreko zenbait herri, Orreaga, Auritz, Erroibar, Artzibar, Longida eta Agoitz. 57 km dira, eta ibilbidearen zatirik handiena bide zaharretan barna igarotzen da. Bide horiek egokitu



eta seinaleztatu egin beharko dira, bizikletentzako erabilgarriagoak eta seguruagoak egiteko eta bizikletaren erabilera landa eremuan sustatzeko.

Artzibartik zein Longidatik abiatuta, bidea Agoitzera sartzen da ubidearen parean, eta, handik, herri-gunera ailegatzen da Iturramako kalean barna. Alde zaharra zeharkatu-eta, San Migel kalean lotzen da Iratiko Trenaren Bide Naturalarekin, eta, beraz, Iruñearekin eta Nafarroako hiriburutik Compostelaraino joaten den bidearekin.

Lanen iraupena 3 hilabete in-

guruoa izanen da, eta aurrekontua 650.000 € gehi BEZa izanen da.

XEGO 17 SL + OBRAS Y CANALIZACIONES JFG SL enpresak egingen ditu obrak. LKS- KREAN S. COOP., berriz, arduratuko da proiektua idazteaz eta obra zuzentzeaz.

Aldi berean, eta betiere landa-inguruneke bizikleta-mugikortasuna sustatzeko, bidari lotutako zirkuitu sare bat osatu nahi da. EuroVelo3 ibilbideak zeharkatzen dituen udalerrri bakoitzean egingen dira. Horretarako, toki-erakundeekin lankidetzan arituko da, haien parte-hartzea eta inplikazioa

bilatuz, beharrak eta lehentasunak ezagutzeko. Zeregin horri dagokionez, ibilbide horietako bakoitzaren obra-proiektuak idazten ari dira, eta, Agoitzen kasuan, Agoitz-San Roman-Aos-Iratiko Natur Bidea Camino Natural del Irati-Agoitz zirkuitua egin nahi da.

Aukera bikaina da, Agoitzentzat, Europako natur azpiegitura sare batean sartzea. Gainera, azpiegiturak bat egiten du Tokiko 2030 agendan ezarritako estrategiek eta mugikortasun iraunkorraren, osasunaren eta ongizatearen aldeko Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Itunarekin.

Bicimugi proiektuari buruzko trebakuntza



Bicimugi proiektuarekin boluntarioria-sare bat jarri da abian Nafarroako hainbat herritan, adinekoak edo mugikortasun murriztua duten pertsonak paseatzeko, eta trebakuntza-saio batzuk antolatu ditu martxoan. Hilearen 16 eta 23an, teoria saioak izanen dira on line. Prestakuntza praktikoa Lizarran eta Vianan egingen da, 19an, eta Agoitzen eta Zizurren, 26an. Interesa duten guztiak izena eman dezakete eta informazioa kontsultatu Bicimugiren webgunean (<https://es.bicimugi.eu>)

Gogorazi nahi dugu Bicimugi mugaz gaindiko proiektuak bizi-

kletaz mugitzea sustatu nahi duela EuroVelo 3 - Erromesen Ibilbidean zehar dauden landa eta mendi eremuetan. Pirinio Atlantikoen eta Nafarroaren artean bizikleta-azpiegitura garatzeaz gain, zirkuituen sare bat egituratuko da, landa-herririk bizikletentzako sarearekin, hots, EuroVelo 3rekin, lotzeko.

Bicimugik, gainera, jarduera pedagogikoak eta sentsibilizaziokoak egingen ditu landa-eremuetako biztanleekin, turistekin eta zikloturistekin. Ekintza horien helburu nagusiak mugikortasun urriko pertsonak, gazteak eta gizartean bantzertuta dauden kolektiboak dira.

Herritarrak artatzeko e-mail berria

Agoizko Udalak posta elektronikoko helbide berria egokitu du, herritarrak artatzearekin lotuta dauden aferetarako, eta, ondorioz, hemendik aurrera ez da erabilgarri egonen ivillanueva@aiz.es helbidea.



Onetsi dira dirulaguntza eta hitzarmenen deialdiak

Agoizko Udalak duela gutxi onartu zituen euskara, kultura, hezkuntza eta gizarte gaietarako diru-laguntzen deialdiak eta hitzarmenak. Horiei esker, euskararen normalizazioan lan egiten duten erakundeek eta hizkuntza hori ikasi nahi dutenek diru-laguntzak jaso ditzakete, laguntza horiek arautzen dituzten oinarrien arabera. Kultur jarduerak egiteko herriko elkarrean aldeko deialdia Kulturgunean sortutako eztabaida eta adostasunaren emaitza da. Kulturgunea

partaidetzazko kudeaketarako organoa da, eta, gainera, berak ezartzen eta arautzen ditu laguntzak jasotzeko oinarriak.

Hezkuntzaren arloan, diru-laguntzen helburua da Guraso Elkarreko jarduerak finantzatzea, eta horretarako 1.000 euroko partida dago. Gizarte-gaietara bideratutako laguntzak, eremu horretan diharduten toki-erakundeei zuzendutakoak, berriz, 1.500 euroko aurrekontua dute.



Babes zibilaren arloko lankidetzaren hitzarmena berri da

Nafarroako Gobernuak, Lehendakaritza, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuaren bidez, eta Foru Komunitateko zazpi udalek, suhiltzaile boluntarioen tokiko elkarrekin batera (horien artean, Agoizko Udala), babes zibilaren eta larrialdiei aurre egitearen arloko lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatu zuten, bereziki su-teen prebentzio eta itzaltzeari

eta salbamenduari dagokienez. Hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak 203.000 euroekin lagunduko du udal horietako suhiltzaile boluntarioen parkeen jardura, eta laguntza teknikoa eta prestakuntza espezifikoa eskainiko die. Hitzarmenaren helburuen artean honako hauek daude: pertsonen zein ondasunen babes- eta segurta-

sun-mailak handitzea; era guztietako larrialdiak prebenitzeko ekintzak bultzatzea; aurreikus daitezkeen arriskueterako baliabideetan parte hartzea; suteak itzaltzeko eta salbamendurako ekintzak bultzatzea; eta babes zibileko beste jarduketak batzuk. Era berean, larrialdi-egoeretan esku-hartze egokia lortzeko beharrezkoak diren jarduerak adosteko beharra jasota dago.



Ate zabaleko eguna, Haur Eskolan

Joan den otsailaren 19an 0-3 urteko Haur Eskolak atea ireki zituen Agoizko eta inguruko familiei ikastetxea ezagutarazteko. Jardunaldiak eskolako gune guztiak bisitatzeko balio izan zuen, barrukoak zein kanpokoak, eta bertaratutako familiei aurrematrikulei buruzko informazio guztia bertatik bertara helarazteko.

Bederatzi familiak parte hartu zuten, eta Taupadak taldeko ki-deekin batera, gela, atsedeneleku, psikomotrizitate gela, jangela eta ikastetxeko beste gune batzuk ikusi zituzten. Gainera, familiek eta haiekin zihozten haurrek aukera izan zuten Haur Eskolan

erabili ohi diren hainbat materialekin jolasteko eta esperimintatzeko. Horretaz gain, eskolak egiten ohi den argi tailer batean

parte hartzeko aukera izan zuten. Zalantzarik gabe, eskola modurik onenean bizitzeko jarduera izan zen.



Kultur balantzea

Santa Agatak ireki zuen otsailko kultur programazioa. Urtero bezala, jai tradizional honetan baserriarrez jantzitako neska-mutikoak bildu ziren, makila eskuan, eta, Agoizko txitulari taldeak lagunduta, hainbat abesti abestu zituzten. Elizaren ondok, santua oroitarazten duen tailaren ondok alegia, abiatu ziren, eta, ondoren, ibilbidea egin zuten Agoizko kaleetan barrena, Merkatu plazan amaitu arte. Herrian errota dagoen ohitura hori amaitu

ondoren, Korrikaren edizio berria aurkeztu zen Aurelio Leon aretoan, Onintza Enbeitia Maguregiren "Izurritea" liburuaren aurkezpenaren aurretik.

Antzerkia musika ikuskizun moduan iritsi zen «Route 6.6» lanarekin. Hainbat lekutara bidaia, istorio ederrak ezagutzeko: "6 soka, 6 ipuin. Soka bakoitza leku bat, leku bakoitza istorio bat, oroimenean betiko gordetzen diren horietakoa".

Joan den abenduan bertan behera geratu zen ipuin-kontakteta saioa berriro programatu zuen liburutegiak. Estitxu Arroyoren eskutik "Celebrando con cuentos" ipuina izan zen aukeratutakoa.

Guillermo Piqueroren "En el vientre de Mari. Las raíces preindoeuropeas de la mitología vasca" liburuaren aurkezpena bertan behera utzi behar izan zen, eta baita dantza garaikideko «Origenes» ikuskizuna ere.



Agoitzen hasi zen 'Uholdeak' programaren hirugarren edizioa

Uharteko Arte Garaikideko Zentroak antolatutako Uholdeak erakusketaren hirugarren edizioa, Nafarroari lotutako artistek egindako ekoizpenekin osatutako erakusketa ibiltaria, Agoitzen hasi zen berriro eta hirugarren urtez jarraian. Bertan izanen da martxoaren 19ra arte. Ondoren, Altsasuko Iortia Kultur Etxea bisitatuko du, eta maiatzean Tafalla Kulturgunean gozatu ahal izanen da. Jone Rubio Mazkia-

ran da Uholdeak proiektuaren komisarioa, eta erakusketan parte hartzen dute Ione Atenea, Atxako Aizpea, Celia Eslava, Andrea Ganuza eta Mireya Martin Larumbe artista plastikoek. Gainera, ekintza ezberdinak egingen dira Ibil Bedi, Sutan dantza taldea, Artafarandula eta bertsoaritzza eta poesia saioak eskainiko baitira horren barnean.

Hirugarren edizio honetan, hiru

esparru teorikotan oinarritutako ikerketa bat da proiektuaren ardatza: imaginario feministak, espazioa eta gorpuztasuna. Parte-hartzaileek egindako lanak biltzeko balio dute. Erakusketan dauden ekoizpen artistikoak antzeko oinarri teorikoen gainean eraiki arren, diziplina-ezaugarri dagokienez desberdinak dira: eskultura, instalazioa, marrazketa, dantza, zinema, bertsoaritzza, literatura, musika...



Inauteriek Agoizko kaleak "mozorratu" dituzte

Pandemiak behartutako urtebeteko etenaldiaren ondoren, Agoitzek inauteriak ospatu zituen berriro. Otsailaren 26an (larunbata) izan zen jaietako lehen ekitaldia. Herrian barna egiten ohi den desfilearekin hasi zen eguna, eta bertan Agoizko inauterietako pertsonaiek parte hartu zuten, maskaritek eta kaskaboboek hain zuten ere. Agoizko Txitulari Taldeak lagunduta, kalejira koloretsua egin zuten. Arratsaldean, Merkatu plaza eta Erregeordearen kalea lotzen dituen «Kaskabobo eta Maskariten» kalea ireki eta garbitu zen, eta jende andana bildu zen irekiera ikusteko. Tradizio herrikoiak

dienez, hilketa bat izan zen bertan duela 70 urte baino gehiago, inauteri egun batean, eta ordutik, etxartea itxita dago. Ekitaldi honen ondoren, desfile berri bat egin zen herriko kaleetan zehar. Oraingoan, gainera, herriko talde gehiagok hartu zuten parte: txistuak, trikitixak, gaitak, joaldunak eta erraldoien konpartsa.

Inauterietako asteartean kalejira egin zen, eta bertan haur askok parte hartu zuten. Ondoren, Merkatu plazan, Zirikio eta Kapusai izan ziren madarikatutako kale horretan izandako gertaera lazgarrien protagonistak.

